

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

LIGIKO ZUBIA

LIGIKO ZUBIA

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUAK:

Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, leku eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egokiro erabiliz. Eskolako eguneroko bizitzako egoeretan parte hartzea, ahozko hizkuntza erabiliz. Gaitasun metalinguistikoa garatzea.

EDUKIAK:

Jarrerak:

Zuhurra izatea: hitza eman baino lehen, ondo pentsatzea.
Zuzentasuna.
Ordena.

PROZEDURAK:

A. AHOZKO TESTUAK ULERTZEA eta EKOIZTEA:

- a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.
- b. Gelako eztabaidak eta planifikazioa.

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:

- a. Narrazioa:
 1. Ipuin fantastikoa
 2. Gertakarien kontakizuna
- b. Elkarrizketa.
- c. Deskribapena.

KONTZEPTUAK:

Narrazioari buruzkoak
Denborako une ezberdinak
Kausa eta ondorioa
Deskribapenari buruzkoak
Pertsonaia
Koherentzia
Narrazioaren hari kronologikoa

"LIGIKO ZUBIA" IPUINAREN HARI KRONOLOGIKOA.

A) Bideoan agertzen diren sekuentzia-zatietatik, esan zein den gaizki ordenatua dagoena.

B) Aurkitu sekuentziari ez dagokiona.

C) Identifikatu ekintzarekin bat ez datorren testua.

D) IRAKASLEAK, HAURREN AHALMENAREN ARABERA, SEKUENTZIAKO UNE BATZUK AUKERATUKO DITU, HAURREK ORDENA DITZATEN.

1. Ligiko herritarrek zubi bat egin nahi zuten, ibaia zeharkatzeko.
2. Zubia egiten saiatu ziren, baina, ibaia handitzen zenean, zubia berekin eramaten zuen.
3. Ligiko herritarrak erabat etsita zeuden. Ez zen zubi sendo bat egiteko modurik!
4. Goiz batean, emakume ezezagun bat heldu zen herrira, eta zubia nahi zutela entzun zien.
5. Lamiak zubia egingo zuela esan zien.
6. Gizonek nahi zuen guztia emango ziotela agindu zioten.
7. Lamiak ez zien dirurik eskatu, baizik eta herriko haurrak eskatu zizkien.
8. Lamiak zubia gau batean egin behar zuen, oilarrak kukurruku egin baino lehen.
9. Herritarrek etxean kontatu zutenean, haurrak eta emakumeak haserretu egin ziren.
10. Herriko jendeak, ohera zihoala, hotsak entzun zituen.
11. Herriko jendea ibaira joan zen, isil-isilik, hotsak norenak ziren jakiteko.
12. Lamia eta deabrutxoak ikusi zituzten, zubia egiten ari zirela.
13. Haurrek plan bat pentsatu zuten, lamiak eraman ez zitzaizkien.
14. Ukuilura joan ziren, eta oilarra iratzarri zuten argi batekin.
15. Oilarrak, argia ikusi zuenean, egunsentia zela pentsatu zuen eta kukurruku egin zuen.
16. Harri bat falta zenean, lamiak kukurrukua entzun zuen, eta harria uretara erori zitzaion.
17. Lamia oso haserre joan zen, zubia amaitu gabe eta baita haurrik gabe ere.
18. Zubia ibaiaren gainean geratu zen; hori bai, harri bat falta omen zaio.

Narrazioaren hari logikoa: kausa / efektua erlazioak.

Honako gertakari eta kausa hauek desordenaturik emanda, haurrek aukeratu behar dute zein den bakoitzaren kausa.

- Herriko jendeak zubia nahi zuen ibaia zeharkatu behar zutelako
- Zubia erori egiten zen ibaiaren indarra oso handia zelako
- Herritarrek lamiari, ibaia egiteagatik, haurrak emango zizkiotela agindu zioten ez zuela lortuko pentsatu zutelako.
- Haurrak haserretu egin ziren haurrak opari ematea oso gaizki dagoelako.
- Lamiak zubia azkar-azkar egin zuen deabru txikien laguntza zuelako
- Haurrek oilarra esnatu zuten lamia engainatzeko.

- Zubiari harri bat falta zaio lamiari erori egin zitzaielako.
- Zubia ez da erori harri asko dituelako eta ondo egina dagoelako.

TESTUAK

1.- Testu-sekuentziak:

Narrazioa: (Igorlea NI eta aditz-formak)

Taldeko haur bakoitzak ipuinaren zati bat kontatuko du, lamia izango balitz bezala, egin dioten iruzurra salatu nahian eta haserre

Elkarrizketa: (azaldu haserrea, baina itxurak gordez)

Irakurri eta antzeztu elkarrizketa hau.

Herritar 4.- Baina nola demontre egin duzue? Argi gera bedi neure semea ez diodala emango.

Herritar 3.- Egon lasai, ez du eta amaituko. Ezinezkoa da!

Herritar 5.- Eta zergatik ez diozu zeure burua eskaini?

Herritar 2.- Ez estutu! Gau batean zubia egingo duenik ez da!

Herritar 5.- Nola bururatu zaizu haurrak eskaintzea?

Herritar 2.- Nola esan behar dizut ez duela egunsentirako amaituko!

Herritar 1.- Barrez lehertuko gara. Asko jota, dozena bat harri ipiniko ditu.

Elkarrizketa: azaldu helduei egin dutenari buruzko gaitzespena, eta eskatu berriro gerta ez dadila.

Haur batzuek helduena egingo dutenez gero, barkamena eskatzen saiatuko dira, eta berriro ez dutela egingo azalduko dute.

Gertakarien kontakizuna:

Jolasteko hizkuntza

"Asko daki katuak, baina gehiago saguak!"

·Horra hor esaera polit bat. Ipuin honetan, nori esan beharko zaio?

Oilarrari

Helduei

Lamiaren laguntzaileei

Lamiari

Ea badakizun zer jartzen duen mezu hauetan:

(Jakiteko, ALDERANTZIZ IRAKURRI BEHAR DIRA).

.oid oj kitikot neuz ze etsu kaukuk.

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Ipuina: "katuen txilina"

Irakurri ipuina, eta jar ezazu honako laburpentxo hau ordenan.

Mundu osoko saguak urtero biltzen ziren.

Nahikoa zen! Saguek bakean bizi nahi zuten, beldurrik gabe eta mehatxurik gabe. Zer egin, ordea?

_ Eta kriskitina nork ipiniko die?

Halako batean, sagu eme bati ideia bikaina bururatu zitzaion, eta honela hitz egin zien:

S_ Katuak gure arerioak dira, gure etsaiak. Gugana isil-isilik hurbiltzen dira. Nik proposatzen dut lepoan kriskitin bat jartzea.

Katu guztiei oso ondo iruditu zitzaion. Halako batean, batek honela erantzun zion.

Inork ez zuen eskurik altxatu, denak beldur ziren. Beraz, katuek saguak jaten jarraitzen dute.

Batzar horietako batean, katuei aurre egitea erabaki zuten.

2.4.-GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, guztien artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

§ Karatula (minutu bat.)

§ Narratzailea (2/4 minutu.)

§ Kondaira (12/16 minutu.)

§ Kredituak (minutu bat.)

Gidoi literarioa:

Ligiko zubia

HONTZA: Bazen behin Ligi herria. Zuberoan dagoena, bai, eta Uhaitzandi ibaiak zeharkatzen duena. Bada, herritarrek zubi bat egin nahi zuten ibaia zeharkatzeko, ze, bestela, ertz batetik bestera igarotzeko, ibilaldi luzeak egin behar baitzituzten. (OFF) Ibaia estuagoa den aldera joan behar izaten zuten, alegia. Eta, jakina, itzultzeko, berriro gauza bera egin behar zuten. (ON) Beraz, ligiarrak behin eta berriro saiatu ziren zubia egiten, baina, ibaia handitzen zenean, zubia aurretik eramaten zuen. Bost aldiz gertatu zitzaizen horrela. Ligiko herritarrak erabat etsita zeuden.

HERRIBAT: Beti berdin, gora eta behera ibili behar! Ea zubia egiten duten.

HERRIBI: Egitea erraza da. Zutik irautea da zailena.

HERRIHIRU: Horixe! Hainbat aldiz egin izan dugu, baina alferrik. (AD LIB)

HERRIBI: (AD LIB) Ibai hau menderaezina da!

HERRIHIRU: Ez dago zubi sendoa egiteko modurik!

HONTZA: (OFF) Orduan, emakume ezezagun bat heldu zen herrira, eta bertakoen jarduna entzun zuen.

3:56

HERRIBI: A, zubi sendoa egiten duenari ez dakit zer emango niokeen!

HERRIHIRU: Nik ere bai! Lana ederki erraztuko liguke, alajaina!

LAMIA: Zer emango zenioke?

HERRIBAT: Nahi lukeena!

LAMIA: Hori asko izan liteke.

HERRIBI: Ez emakumea, ez da dirurik hori ordaintzeko.

HERRIBAT: Bai horixe! Nahi duen diru guztia emango nioke nik.

LAMIA: Eta dirurik eskatuko ez banu?

HERRIBI: Ja, ja, ja, ja!

HERRIBI: Ja, ja, ja, ja!

HERRIHIRU: Ja, ja, ja, ja!

HONTZA: (OFF) Barregura eman zien. Izan ere, nork egingo zuen zubi bat dohainik? Emakumeak burutik jota behar zuen!

LAMIA: Zergatik egiten duzue barre?

HERRIHIRU: Ja, ja, ja, ja! Tira, ez gaude txantxetarako!

HERRIBAT: Ja, ja, ja, ja! Halakorik ere! Ez du dirurik nahi!

HERRIBI: Ja, ja, ja, ja! Hori ez da okerrena. Zubi sendoa egingo duela esan ez du ba?

HERRIBAT: (BARRE)

HERRIHIRU: Et, et, et. Ez dezagun barre egin. Guk zubia behar dugu, eta berak horixe eskaini digu.

HERRIBAT: Ja, ja, ja, ja! Eta musu-truk! Ja, ja, ja!

HERRIBI: Ja, ja, ja, ja! Hori, hori, gainera hori! Ja, ja, ja!

HERRIHIRU: Ja, ja, ja, ja! Ederra pagotxa! Ja, ja, ja!

LAMIA: Ez bazaizue interesatzen, agur!

HONTZA: (OFF) Barre egiten jarraitu zuten, baina gero hobeto pentsatu zuten.

HERRIBAT: E, ez zaitez joan!

HERRIBI: Zubia egin nahi baduzu, egizu!

HERRIHIRU: Ez dugu ezer galduko. Gainera, dohainik bada, ja, ja, ja!

HERRIBAT: (BARRE)

LAMIA: Ikusten dut ez nauzuela serio hartzen! Agur!

HERRIBAT: Barkatu, baina bost aldiz saiatu gara zubia egiten, eta bostetan urak eraman du!

LAMIA: Ba nik egin dezaket, eta, gainera, oso denbora gutxian!

HERRIBI: Eta dohainik?

LAMIA: Ez dizuet dirurik eskatuko, beste gauza bat baizik.

HERRIHIRU: Zer nahi duzu, jakin badaiteke?

LAMIA: Zubia bukatutakoan, herriko neska-mutilik azkarrenak niretzat izango dira. Hori da nire baldintza.

HERRIHIRU: Ondo da. Guk onartu dugu, baina gure baldintza hauxe da: gau batean egin beharko duzu.

LAMIA: Gau batean? (AD LIB)

HERRIBI: Ez duzu ba esan oso arin egiteko gai zarela?

LAMIA: Ba, bai, halaxe da. Hala esan dut, bai.

HERRIHIRU: Beraz, oilarrak kukurruku egin baino lehen amaitu beharko duzu zubia.

LAMIA: Horrelaxe gertatuko da. Zuek badakizue, herriko neska-mutilik azkarrenak eman beharko dizkidazue. 6:44

HONTZA: (OFF) (zazpian) Lasterka joan ziren beste herritarrei kontatzera. Zur eta lur geratu ziren, eta zaharrenak errieta egiten hasi zitzaizkien.

HERRILAU: Baina nola demontre egin duzue? Argi gera bedi neure semea ez diodala emango.

HERRIHIRU: Egon lasai, ez du-eta amaituko. Ezinezkoa da!

HERRIBOST: Eta zergatik ez diozu zeure burua eskaini?

HERRIBI: Ez estutu! Gau batean zubia egingo duenik ez da!

HERRIBOST: Bere semea trukean eskainiko duenik ez dagoela esango nuke nik. / Nola ordainduko diozue?

HERRIBI: Nola esan behar dizut ez duela egunsentirako amaituko, e?

HERRIBAT: Barrez lehertuko gara. Dozena bat harri ipintzeko gauza bada, askotxo irudituko zait.

GILENBAT: (OFF) To, Gilen!

GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!

GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!

GILENBAT: (OFF) To, Gilen!...

GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!...

GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!...

HERRILAU: Baina zer demontre gertatzen da?

HERRIHIRU: Egon lasai, ikustera joango naiz!

HERRILAU: Ibaitek datorrela dirudi. A zer burutazioa zuena!

HERRIBOST: Honi usain txarra hartzen diot!

HERRIBI: Ez estutu, joango naiz ikustera!
HERRIBOST: Zertan ari ote da emakume hori? Badirudi ez dagoela bakarrik!
HERRIBAT: Joango naiz ikustera.
GILENBAT: (OFF) To, Gilen!...
GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!...
GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!...
HERRIBAT: (AD LIB)
HERRIBI: (AD LIB)
HERRIHIRU: (AD LIB)
HERRIBAT: (batean) Zarata asko, baina ikusiko duzue nola ez duen lan handirik egin!
HERRIBI: Hobe dugu horrela izatea; bestela, nola ordainduko diogu?
HERRIHIRU: Ibai horretara iristen garenean, zubi hori gurutzatuko dugu, je, je!
GILENBAT: (OFF) To, Gilen!...
GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!...
GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!...
HERRIBAT: Ahots asko aditzen dira.
HERRIBI: Bai, ez gara gorrak!
HERRIBAT: Ez zaitez haserretu.
HERRIBAT: (AD LIB)
HERRIBI: (AD LIB)
HERRIHIRU: (AD LIB)
GILENBAT: To, Gilen!...
GILENBI: Ekar ezak, Gilen!...
GILENHIRU: Har ezak, Gilen!...
(ALDI BEREKOA)
HERRIBAT: (OFF) Ene, ederra egin dugu!
HERRIBI: (OFF) Lamia bat da!
HERRIHIRU: (OFF) Ordaindu egin beharko diogu.
HERRIBAT: (OFF) Ez da dena galdu.
HERRIBI: (OFF) Zer egin dezakegu?
HERRIHIRU: (OFF) Pentsatu, eta bizkor!
HERRIBAT: Ikusi gaitu! Goazen hemendik! (OFF) (AD LIB)
HERRIBI: O, o, o, o! (AD LIB) (OFF)
HERRIHIRU: Ama nirea! Hau beldurra! (AD LIB) (OFF)
(ALDI BEREKOA)
GILENBAT: To, Gilen!
GILENBI: Ekar ezak, Gilen!
GILENHIRU: Har ezak, Gilen!
GILENBAT: (OFF) To, Gilen!...
GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!...
GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!...
HERRILAU: (HARRITUTA) (AD LIB)
HERRIHIRU: (HARRITUTA) (AD LIB)
HERRIBOST: (HARRITUTA) (AD LIB)
HERRIBI: (HARRITUTA) (AD LIB)
HERRIBAT: (HARRITUTA) (AD LIB)
HERRILAU: (hogeita zortzian) Ez zutela bukatuko, e?
HERRIHIRU: Ez estutu, pentsa dezagun!
HERRILAU: (AD LIB) Lehenago pentsatzea zenuten! Orain, zer pentsatuko dugu?
HERRIBOST: Tira, lasai. Ez estutu, zubia gau batean egingo duenik ez da.

HERRIBI: Zer edo zer bururatuko zaigu. Utzi pentsatzen!

DENAK: (AD LIB)

GILENBAT: (OFF) To, Gilen!...

GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!...

GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!...

LAMIA: Harri gutxi falta dira, eta oraindik ez du eguna argitu. Ja, ja, ja! Hamar marmar, besterik ez dira falta; bederatzi...

GILENBAT: (OFF) To, Gilen!...

GILENBI: (OFF) Ekar ezak, Gilen!...

GILENHIRU: (OFF) Har ezak, Gilen!...

HERRIHIRU: Goazen neure ukuilura!

HERRIBAT: Zer bururatu zaizu?

HERRIBI: (OFF) Beste ideia xeble bat ez, e?

HONTZA: (OFF) (Hamazazpian) Oilarra iratzartu zuten!

HERRIHIRU: (AD LIB)

OILARRA: Kukurruku! Kukurruku! Kukurruku!

LAMIA: Ja, ja, ja! Azken harri...!

GILENBAT: To, Gilen! (AD LIB-AK)

LAMIA: E, e, e? Ezin daiteke izan! Eguna argitu du! Ai, ai, ai! Goazen hemendik! Goazen!

OILARRA: (OFF) Kukurruku!

HONTZA: Hain arin alde egin zuten lamiak eta txerrentxoek, azken harria ibaira erori baitzitzaien. / Eta harrezkero Ligiko zubiari harri bat falta zaio. Baina, dena dela, ibaiak ezin izan du berriro bota.

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerraren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-172/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**